

FUNTZESKO BALIABIDEAK

Gure enpresari garatzeko aukera emango lioketen funtsezko baliabideak hainbat motatakoak izango lirateke: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak. Hau da, mota desberdinetan banatzen diren baliabideak dira:

Baliabide fisikoak, kasu honetan, Gizarte Etxeek uzten dizkiguten lokalak edo gelatxoak izango lirateke, edo kurtsoak eskainiko ditugun lekuak. Oso garrantzitsua da garbi eta egoera onean egotea.

Baliabide intelektualak eta giza baliabideak gure elkarte honen jabeen antolamendua eta sormena har daitezke. Erantzukizuna eta konpromisoa oso baliabide beharrezkoa eta azpimarragarria da.

Azkenik, Finantza baliabideak daude. Elkarte honi profesionalki ekin nahi diogunez, bankuren batekin harremanetan jarriko gara. Dirua modu ordenatu batean izateko eta mailegu bat eskatzeko.

Kurtso hau aurrera eramateko eta klaseak modu egoki batean eskaintzeko hainbat baliabide behar izango ditugu. Adibidez, lehen sorospentarako, gurutze gorriko bi langile kontratatuko ditugu eta beharrezko material guztiak erosiko ditugu: manikiak eta botikinan beharrezkoak diren produktu eta material guztiak.

Defentsa pertsonalerako beharrezkoak diren kaskoak, eskularruak eta manikiak guk erosiko eta eramango ditugu: sei kasko, sei eskularru pare eta hiru maniki.

Gestioak azaltzeko eta horren inguruko klaseak emateko, udalak ordenagailuak usteko prest dago eta beraz material hori erostea ez zaigu beharrezkoa egingo. Ordenagailu horiek teknologiar buruzko tailerra emateko ere erabiliko dugu.

Beste alde batetik, sukaldaritza tailerra emateko janaria erosi beharko genuke, hau da, errezetak osatzeko beharrezkoak diren osagai guztiak: hirina, azukrea, gatza, oiloa, pasta, haragi motak, arraina, lekaleak, barazkiak eta frutak.